

Gaur azaroak 1 du, eta, tamalez, ezin izan dugu garaiz osatu hilabete honetako puntata. Hala ere lavori in corso dira, ez dugu podcasta ahaztu. Borondate onaren (eta kontzientzia txarraren) isla, hemen duzue hurrengo Irakurriamoren testua, zeinetan Antonio Scuratiren [M. El hijo del siglo](#) eleberriaren kritika egin dugun:

Ez dakit zuei ere gertatzen zaizuen, baina niri gero eta gehiago kosta egiten zait 819 orrialdeko liburu bati aurre egitea. Alde batetik, halakoek gero eta gehiago gogoratzen dizkidatelako karrera garaiko eskuliburu infumableak; bestetik, eguneroko betebeharrak denbora gutxi uzten diotelako plazer hutsez egindako irakurtaldiari, eta horrek esan nahi du eleberri on batek eskatzen duen murgilketa ariketa ezingo dudala gauzatu, egun gehiegi igaroko direla lehen eta azken orrialdearen artean, eta istorioa hezur muineraino sartzearen sentipen goxo hori lausotu egingo dela.

Hala ere, ekin nion Antonio Scuratiren *M. El hijo del siglo* irakurtzeari. Batez ere ez delako oso ohikoa Italiako fenomeno literarioek gurean ere oihartzuna izatea, baina kriterio oneko lagunek gomendatu zidatelako ere bai.

Eta uztail osoa eman nuen Lehen Mundu Gerra osteko Italia zarpail, ezegonkor, biolento eta fantasmal horretan nabigatzen. Scuratik garai baten erretratua baino gehiago eskaintzen digulako: herrialde baten endekapen politikoaren kutxa beltza mahaigaineratzen du, prozesu horretan eragina izan zuten faktore soziologikoak, ekonomikoak eta kulturalak aletuz zertzelada poetikoak izanagatik gardena den estilo narratiboa baliatuta.

Eleberriak faxismoaren jaiotzetik diktadura totalitarioa berretsi zuten *Leggi Fascistissime* onartu arteko sei urteen berri ematen digu zehaztasun ia kirurgikoz. Horretarako, garai horretan rol garrantzitsua jokatu zuten pertsonaiei lotutako kapitulu laburrak erabiltzen ditu, ordena kronologikoa jarraituta. Kapitulu horietako bakoitzaren amaieran, garaiko prentsaren edo protagonisten korrespondentzia pribatuaren pasarteak erabiltzen ditu egileak, transmititu nahi duen mezua enfatizatzen. Alde horretatik, irakurle (eta, hortaz, gehienetan, idazle frustratu) adiari *M-k* mezu argia igortzen dio: talentua ere badago, talentua ere garrantzitsua da, baina dokumentazio lanak pisu erabakigarria du horrelako nobela baten idazketa-prozesuan. Hortxe dugu liburuaren amaierako hiztegia, dramatis personae erabilgarri hori: egilearen pultsio dokumentalistikoa islatzen du, hemerroteketan eta artxibategietan igarotako orduak azaleratu nahi ditu, eta, aldi berean, argi uzten digu ez gaudela lan narratibo huts baten aurrean, asmoa askoz anbiziosoagoa dela.

Azken finean faxismoaren kontrako alegatua baita nobela hau, bai. Alabaina, arretaz irakurritz gero ideologia horretaz erditu zen gerraren kontrako alegatua ere bada, eta zehatzagoa izatearren, gerren eguneroko bizipenak eragiten duen giro bortitza eta hegemonikoki maskulinoa salatzen du. Eta puntu honetan da bereziki beldurgarria Scuratiren mezua. Izan ere, Amerigo Dumini, Italo Balbo eta beste squadristei xarma zikin, likatsu bat darie. Hori da arriskutsuena, gaztea bazara eta zure bizitza jaiotzearen unetik bertatik blaitu duen neoliberalismoak emandako definizioaren arabera ulertzen baduzu askatasun hitza.

Horrez gain, eta bereziki, faxismoaren aurreko innakzioa kritikatzeko du liburuak. Ezkerraren ezbaia, erdipurdikotasuna, barne-banaketa eta epe motzerako begirada kainitak izan zituen ondorio politikoak maisutasunez islatzen ditu egileak. Ondo kudeatutako presentismoaren kutsua dario narrazioaren geruza horri. Gaur egunerako irakaspen politiko baliotsua, beste behin.

Faxismoaren esparrutik kanpo, Giacomo Matteotti diputatu komunistaren figura zentrala iruditu zait. Duintasun politikoaren eredu gisa ageri zaigu, baina bizitza pertsonalaren ajeak direla eta, bere buruari sua ematea erabaki zuen gizakia ere irudikatzen du liburuak, pertsonaia historikoaren alderik pertsonalena (eta Historia liburuetan ageri diren gizon ustez handien sukalde bazterreko

ifrentzua) erakusten diguna. Gogoratu, lagunok: egunak 24 ordu ditu, eta ez da erraza heroia eta aita ona, bikotekide ona izatea aldi berean.

Aparteko aipamena merezi du Gabriele D'Annunzio poeta libertino eta lider militar filofaxistaren pertsonaia maradonianoak. Fiumeko hiria konkistatuz eta bertan hainbat urtez errepublika kalifikaezina commandatuz Italiaren batasun prozesua burutzen saiatu zen. Mugimendu irredentistak garai horretako italiar politikagintzaren gain ezarri zuen auctoritas beto-emaile horrek *Historiaren txoko* luze baterako materiala eskaintzen digu.

Bukatze aldera, eta arlo teknikoaren azaleko analisisa egitearren, itzulpenari buruz hitz egin nahiko nuke. Izan ere, italieraz ez dakien irakurleak hautu lexiko eta esaldi-eraikuntza arraroak sumatuko ditu liburuaren zenbait txokotan. Italieraz dakienak, tarteka, antzemango du zeintzuk diren hautu horien atzean ezkuta daitezkeen okerrak eta presak. Azken iruzkin honek ez baitu itzulpenaren nolakotasunaren pisua, ez osoa behintzat, itzultzailearen bizkar jarri nahi: eleberriaren jatorrizko bertsoa 2018an argitaratu zen, eta gaztelaniazkoa 2020ko urtarrilerako zen liburudendetako erakusleihoan. Jada esan dugu: 800 orrialde pasatxoko adreilu batez ari gara. Ez dira garai onak liburuaren industriarentzat, eta argitaletxe handi batek arrakasta usnatzen duenean ez dio taxuzko epemugarik eskainiko parolatoreari, bistan denez. Bestalde, iruditzen zait hirugarren pertsonan idatzitako eleberrien artean oso zaila dela aurkitzea pertsonaiei *M-k* besteko bolumena eta kolorea ematen dion obrarik. Salbuespen ia bakarra liburuaren azken kapitulua da, lehen pertsonan narratutako Mussoliniren hausnarketa durduzagarri hori. Baina orrialde bakar horretara heltzeko beste 806 dituzue edateke. Ez izan zalantzarik: betekadak merezi du.

Mussoliniren azken hausnarketa euskaraz entzun nahi baduzue, puntata grabatu arte itxaron beharko duzue...